eta Tolosako alkatea zen, eta arestian aipatutako Nafarroako familia ilustre horretako kidea.

Hainbat kargu bete zituen probintziako administrazioan, eta Tolosako bertako hainbat gorabehera eta arazo ere bideratu zituen, alkate zen aldetik. Aipatzekoa da, alaba jaio baino urte gutxi batzuk lehenago, 1781ean, parrokia bigarren aldiz erre zenean eta parrokiako organoa eta beste hainbat tresna sute hartan kiskali zirenean, bera izan zela, " tenplua zaharberritzeko ebaluazioa eta aurrekontua egiteko eta finantziazioa bilatzeko lau mandatarietako bat" . Halaxe jaso dugu Enrique Belloren agirietatik. (3)

Ama, Luisa Maria Sarria Villafañe, Zamoran jaioa zen, 1763ko abuztuaren 26an. Nolanahi ere, aitaren aldetik Gasteizko Sarria familia noblearen ondorengoa zen. Aspaldi-aspalditik San Bizenteko elizako Karmengo Amaren kaperan zuten familiaren armarria Sarriatarrek. Amaren aldetik, berriz, Valencia-Guadalfajara familia zamorarraren ondorengoa zen. Zamorako San Pedro eta San Ildelfonso parrokian hilobi baten titularra zen familia hori eta haien arbasoetako bat Prudencio Guadalfajara almirante entzutetsua izan zen.

Pilar Acedo Sarriaren gurasoak alaba jaio baino urtebete lehenago ezkondu ziren Ordizian, 1783ko apirilaren 20an, baina Tolosan bizi ziren, aurrez aipatutako Atodo jauregian.

Bizitzako lehen urteak Oria ibaiaren ondoan igaro zituen, jauregiaren atzealdetik igarotzen baitzen erreka. Izokinak oso ugariak ziren garai hartan Orian, hainbesteraino parrokia eraikitzen jardun zuten langileek greba bat baino gehiago egin baitzuten, eguna joan eguna etorri platerean beste jatekorik ez zietelako jartzen.

Aita, hiribilduko alkatea zen aldetik, urte gutxi batzuk lehenago (1774) eraikitako Arrameleko Miserikordia Etxeko Gobernu Batzordearen " diputatuetako" bat izan zen, baita " etxezaina" ere; hau da, gaur egun gerentea litzatekeena. Miserikordia Etxea eraiki ahal izateko dirua jarri zuten pertsonen artean mezenas handienetako bat izan zen aita, eta horri esker eskuratu zuen kargua.

*la guerra carlista y tener los liberales moderados el poder, durante diez años (1844-1854) es Tolosa la capital de Gipuzkoa, pero al triunfar los progresistas, los amigos del malvado Duque de Mandas (Fermín Lasala Collado), el gran enemigo de Tolosa, consigue gracias a sus contactos y tejemanjes en la Corte de Madrid, el traslado de la capitalidad a Donostia, en la cual sigue desde entonces en contra de la opinión de las Juntas Generales y de los municipios, que en un principio se opusieron a ello, aunque la triste realidad da carácter de hecho consumado al inmenso latrocinio histórico, desgraciadamente no reparado (2).*

Nuestra biografiada era la primera hija del tolosarra Joseph María Acedo Atodo, II conde de Echauz, nacido el 06.10.1758 y en aquel momento Diputado General de la provincia de Gipuzkoa y alcalde de Tolosa, pertenecía a la ilustre familia de origen navarro que hemos mencionado.

Había desempeñado numerosos cargos en la Administración de la provincia, sin olvidar problemas locales, pues como vemos era alcalde y como anécdota cabe mencionar que pocos años antes, en 1781, cuando al arder por segunda vez la parroquia y quemarse entre otras cosas el órgano, fue uno de los cuatro comisionados, según cuenta Enrique Bello: *para evaluar, presupuestar y buscar la financiación necesaria para la restauración del templo.* (3).

Su madre era Luisa María Sarria Villafañe, nacida en Zamora el 26.08.1763, aunque procedía por parte de padre de nobilísima familia gasteiztarra, los Sarria, que desde hacía muchísimo tiempo tenía el escudo nobiliario de la familia en la capilla del Carmen de la iglesia de San Vicente; por parte de madre provenía de la importante familia zamorana de Valencia-Guadalfajara titulares de sepultura en la parroquia de San Pedro y San Ildefonso de Zamora entre sus antepasados aparece el famoso almirante Prudencio Guadalfajara,

Los padres de Pilar Acedo Sarria se habían casado un año antes en Ordizia el 20.04.1783 aunque residían en Tolosa, en el palacio de Atodo como ya hemos señalado.

Sus primeros años de vida los pasó al lado del río Oria, que corría por la parte posterior de su palacio, río donde abundaban los salmones, tanto que en su día se habían motivado huelgas entre los constructores de la iglesia parroquial enojados por comer este plato todos los días.

Su padre, alcalde de la villa, como hemos dicho, era, porque era una de las atribuciones del alcalde, uno de los "diputados" de la Junta de Gobierno de la Casa de Misericordia de Arramele, construida pocos años antes, en 1774, pero además era "mayordomo" de la misma, el equivalente a gerente en la actualidad, cargo al que había accedido dado que había sido uno de los mayores mecenas que con su aportación hicieron posible la construcción de la misma.

Desgraciadamente, rencillas y rivalidades en la villa hicieron a la Junta de Gobierno, levantar sospechas sobre su honradez y para ello designaron el año 1785

(3) **BELLO, Enrique. EN TORNO A LOS ORGANOS DE SANTA MARIA DE TOLOSA.** / *BELLO, Enrique. EN TORNO A LOS ORGANOS DE SANTA MARIA DE. TOLOSA.*

Zoritxarrez, hiribilduko liskarrak eta ezin ikusiak tarteko, Miserikordia Etxeko Gobernu Batzordeak ezbaian jarri zuen haren zintzotasuna, eta auzia argitzeko, presbitero bat, Ignacio Sendoa, eta Miserikordia Etxeko abokatua, Jose Ramon Mendizabal Azkue, izendatu zituen kontuak gainbegiratzeko. Jose Antonio Rekondok kontatutakoaren arabera, " oso gogor eta zital jokatu zuten berarekin, hutsegite edo iruzurren bat leporatzeko ahaleginean" (4).

Bi mandatariek 1779 eta 1784 urte arteko kontuak aztertu zituzten eta, huskeria batzuk gorabehera, ez zuten aparteko hutsegiterik aurkitu. Ondorioz, delituрik gabe, garbi eta libre geratu zen, baina oso minduta eta triste. Hainbeste, ezen Gasteizera bizitzera joatea erabaki baitzuen, emaztearen jatorrizko hiribildura.

Horrenbestez, bi urte eskas zituela, Tolosa utzi eta Gasteizera joan zen bizitzera gure protagonista, eta hor eten zen, behin-behinean, Pilar Acedoren eta Tolosaren arteko zilbor-hestea. Aitak bai, Tolosara bueltatu behar izan zuen 1792an, Miserikordia Etxeko Gobernu Batzordean parte hartzeko; izan ere, berak alde egitean, amak, Joachina Atodo Zavalak, Echauzen alargun eta kondesak, hartu zuen " etxezain" kargua, eta orduko hartan, bai, antza denez hainbat irregulartasun atzeman zituzten.

Atodo jauregia hutsik geratu zen. Gerora, errege etxeko kideei ostatu emateko erabili zuten, eta ondoren, Frantziako tropen kuartel izateko. Orduan hasi zen, hain zuzen, jauregia hondatzen.

a un presbítero, Ignacio de Sendoa y al abogado de la Casa de Misericordia, José Ramón Mendizabal Azkue para revisar las cuentas; según relata José Antonio Recondo: *se le trató con suma dureza y saña, tratando de cogerle en algún fallo o fraude.* (4)

Los dos comisionados revisan las cuentas de 1779 a 1784 y encuentran fallos insignificantes, queda libre de delito, pero queda muy dolido y triste, tanto que decide trasladar su domicilio a Gasteiz de donde era originaria su esposa.

Así pues con dos años está en Gasteiz y así termina la corta relación de nuestra protagonista con la villa que le vio nacer, no así su padre, que tendrá que volver a Tolosa en 1792 para acudir a la Junta de Gobierno de la Casa de Misericordia, pues al marcharse había quedado su madre, Joachina Atodo Zavala, condesa viuda de Echauz, como "mayordoma" y parece ser que en este caso sí que se detectaron irregularidades.

El palacio de Atodo quedó vacío, se usaría como alojamiento real y luego como cuartel de las tropas francesas, con ello llegó su deterioro.



**Atodo jauregiko sarrera nagusia. /*Acceso principal al palacio de Atodo.***

[4] RECONDO, José Antonio. MEDICINA Y BENEFICENCIA EN GUIPUZCOA Y TOLOSA. SIGLOS XIII-XX. /*RECONDO, José Antonio. MEDICINA Y BENEFICENCIA EN GUIPUZCOA Y TOLOSA. SIGLOS XIII-XX.*

# Haurtzaroa eta Gaztaroa

## Infancia y Juventud

# 3.



## 3. HAURTZAROA ETA GAZTAROA

Familia, esan dugu lehen, Gasteizera joan zen bizitzera gure protagonistak 2 urte zituela.

Handik lasterrera jaio ziren bere anaia-arrebak: 1786ko ekainaren 14an Marí a Manuela del Sacramento Basilia Modesta Ramona Antonia jaio zen; 1787ko apirilaren 24an beste anai bat jaio zen, baina ez zioten izenik jarri, bataiatu arren gantzutzera ez zirelako iritsi; eta 1788ko martxoaren 16an José Luis Marí a Ramón Vicente Julián Carlos jaio zen, baina hura ere jaio eta berehala hil zen.

Luxuz eta zerbitzariz inguratutako haurtzaroa eta gaztaroa izan zuen, bere mailako familia bati zegokion moduan. Manuela ahizpa, bera baino bi urte gazteagoa, izan zuen jolaserako eta denetarako lagun, harik eta bi-biak ezkondu ziren arte, bi urteko aldearekin ezkondu ere. Bizitza osoan, ordea, harreman estua izan zuten Pilarrek eta Manuelak.

Goi-mailako hezkuntza jaso zuen, hizkuntzak ikasi zituen, oso erabilgarriak gerora izan zuen bizitzarako, eta musika ikasketak ere egin zituen. Gainera, Ama Eliza Santuaren dogma hertsietan hezi arren, Euskal Herriko probintzietako goi-mailako klaseetan hedatzen ari zen espiritu liberalizatzaileak haizeberritu eta moldatu zuen bere jarrera, ondoren ikusiko dugunez.

Oso gazterik ezkondu zen, 16 urterekin, garai hartan ohikoa zenez.

Ezkontzak, berez, eten egiten zuen orduko nesken haurtzaroa eta nerabezaroa; kasik haur izatetik ama izatera pasatzen ziren bat-batean, hori zen ohikoa garai hartan, baina bera ez zen ezpal horretakoa, etxean etsi-etsian geratu eta bizitza alferrik galtzen uztekoa.

Hala, esate baterako, oso gaztetatik hartu izan zuen parte arteari eta literaturari buruzko tertulia interesgarrietan (5).

## 3. INFANCIA Y JUVENTUD

Como hemos visto la familia se traslada a Gasteiz cuando nuestra protagonista tenía 2 años.

Al poco tiempo nacieron sus otros hermanos, María Manuela del Sacramento Basilia Modesta Ramona Antonia que lo hizo el 14.06.1786, otro hermano al que no se puso nombre porque aunque se bautizó no se llegó a crismar el 24.04.1787 y el 16.03.1788 nació José Luis María Ramón Vicente Julián Carlos que también murió al poco de nacer.

Transcurrió su infancia y juventud rodeada de lujo y servicio como correspondía a una familia de se rango, y que compartía con su hermana Manuela, dos años más joven que ella hasta que se casaron ambas, también con dos años de diferencia y con quien luego mantendrá una larga y afectuosa relación a lo largo de su vida.

Su educación fue exquisita, aprendió idiomas, que luego le serian de enorme utilidad para la vida que llevo y música y aunque forjada en los dogmas de nuestra Santa Madre Iglesia, el espíritu liberalizante que en aquel momento calaba en las clases altas de las provincias Vascongadas iba a modificar su comportamiento como luego veremos,

Muy joven, con solo 16 años iba a contraer matrimonio, como era normal en aquella época.

Su infancia y adolescencia se anulaban para convertirse en madre de familia, pero ella no era así, no estaba dispuesta a perder una vida, lo normal en aquella época, para quedarse en casa y con la pata quebrada como decía el viejo refrán español.

Ya desde esa época era una habitual de las interesantes tertulias (5) en las que se hablaba de arte y literatura.

[5] VIVES, Francisca eta MANZANOS, Paloma / *VIVES, Francisca y MANZANOS, Paloma.*



Ortuño Aguirre Corral, Montehermosoko VI. markesaren eta Pilar Acedo Sarriaren senarraren erretratua. Arabako Arte Ederren Museoa. ANONIMOA/
*Retrato de Ortuño Aguirre Corral, VI Marques de Montehermoso, espso de Pilar Acedo Sarria. Museo de Bellas Artes de Araba. ANONIMO*

# Ezkontza
# Matrimonio

# 4.



Amalia Agirre Acedo, Pilar eta Ortuñoren alaba, 1811. urtean Goyak Madrilgo Masserano jauregian margotua. Gaur egun, Victor Hugo Galleryn dago koadroa. Chicago. AEB/*Su hija Amalia Aguirre Acedo pintada por Goya en 1811 en el Palacio Masserano de Madrid, hoy en día en la Victor Hugo Gallery. Chicago. USA.*

## 4. EZKONTZA

Pilar Acedo 16 urterekin ezkondu zen, ezin bestela izan, itzal handiko leinu bateko kide batekin, Ortuño Marí a Ysidro Ygnacio Ramón Juan Nepomuceno Aguirre Corral gasteiztarrarekin. Garaiko aristokraziaren izen segida amaigabe eta arranditsua, berriro ere.

Senarra, 1767ko maiatzaren 15ean Gasteizen jaioa, biharamunean bataiatu zuten San Bizente elizan.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Errege Seminario Patriotikoaren ikasle izan zen Gasteizen, 1776tik 1785era arte.

Ondoren, hainbat kargu publiko izan zituen eta 1880an Arabako Diputatu Nagusi izatera iritsi zen.

Ortuño hau, Montehermosoko VI. markesa, Arabako itzal handiko beste familia bateko semea zen, Ignacio Maria Agirre Ortes de Velascoren semea, hain zuzen. Aitak Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko zuzendari kargua eskuratu zuen 1785ean, Peñafloridako markesa eta bere lehengusua hil zenean, eta Azkoititik Gasteizera eraman zuen elkartearen egoitza, Eskoriatza-Eskibel jauregira. Gasteizko goiko aldean, Montehermosoko bere jauregi eta etxebizitza liluragarritik gertu eduki zezakeen, hartara, elkartearen beraren egoitza ere.

Pilar eta Ortuño 1800eko maiatzaren 11n ezkondu ziren Gasteizko San Bizente elizan. Senargaiak andregaia baino bi aldiz urte gehiago zituen kasik. 33 urte zituen senarrak eta 16 Pilarrek.

Ezkontzaren lekuko izan ziren senarraren osaba, Ignacio Corral Aguirre, Erregearen Kontseilukoa eta Konstantinoplako enbaxadorea; beste osaba ezkontide bat, Joakin Eguia Agirre, Narroseko markesa, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko sortzaileetako bat, Maria Luisa Corral Agirrerekin ezkondua; eta bere aldetik Manuel Acedo Atodo osaba, Tolosako alkate izandakoa.

Ezkontza hau, senar-emazteen leinuak eta kultura aintzat hartuta, XVIII. mende amaierako eta XIX. mendearen hasierako ilustratuena eta entzutetsuena izan zen.

Egiaz, bakoitzaren titulu zerrenda ikusgarria zen. Senarra, Montermosoko VI. markesa izateaz gain, Ciudad Realeko dukea, Lucesko kondea, Trivianako kondea, Mortarako markesa eta Oliasko markesa ere bazen, eta Bizkaiko Butroe eta Mujika etxeetako ahaide nagusia; emaztea, berriz, gure protagonista alegia, Vadoko IV. kondesa zen, Arabako Sarria eta Erentxun jaurerriaren, Vadoko eta Askartzako dorretxeko maiorazkoaren andrea, eta Gasteizko San Bizente elizako Karmengo Amaren edo Erlikien kaperako patronatukoa; Zamorako Villafañeko maiorazkoa ere bazen, eta, horren bidez, On Juan Valentziakoa (Alfontso X.a, Jakitunaren semea) infantearen leinuaren ahaide nagusia. Horiek guztiak,

## 4. MATRIMONIO

A los 16 años Pilar Acedo iba a contraer matrimonio, su marido iba a ser otro ilustre personaje, el gasteizarra Hortuño María Ysidro Ygnacio Ramón Juan Nepomuceno Aguirre Corral; seguimos con la rimbombante retahíla de nombres propia de la aristocracia de la época.

Este hombre que había nacido en Vitoria el 15.05.1767 fue bautizado al día siguiente en la iglesia de San Vicente.



***Gasteizko San Bizente eliza. Han bataiatua zen senarra, eta han ezkondu ziren Pilar eta biak, ezkontzako partidak adierazten duenez. Eta alaba ere bertan bataiatu zuten./Iglesia de San Vicente donde fueron bautizados su marido y su hija, donde se casó por primera vez y la partida de matrimonio.***

Fue alumno del Real Seminario Patriótico de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en Vitoria de 1776 hasta 1785.

Después ostentó distintos cargos públicos hasta llegar a ser en 1800 Diputado General de Álava

Este Hortuño, VI marqués de Montehermoso, procedía de otra otra ilustre familia, en ese caso alavesa, era hijo de Ignacio María Aguirre Ortés de Velasco quien en 1785 a la muerte del marqués de Peñaflorida, su primo, fue nombrado Director de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y trasladó su sede de Azkoitia a



***Montehermoso jauregia. Gasteiz/Palacio de Montehermoso. Gasteiz.***

amaren aldetik jasotako tituluak. Aitaren aldetik, berriz, Echauzeko III. kondesa zen eta Acedoko maiorazkoa Nafarroan eta, horri esker, eserlekua eta botoa zituen Nafarroako Gorteetan; Nafarroan bertan, Berrotzan, Medibilabarriko zergak edo petxak jasotzen zituen, eta, horrez gain, Burgosko Santa Cruz del Valle de Urbion, Riocavado de la Sierra, Soto eta Garganchon herrietako jaurerriaren eta Riocavadoren maiorazkoa zuen, Santo Domingo de la Calzadako patronatuarena, Errioxan, Atodo jauregiarena, Tolosan, Soranekoa, Leintz-Gatzagan eta Doypakoa, Gasteizen.

Ezkondu eta lasterrera, 1801eko abuztuaren 6an, jaio zen haien lehen alaba, lehena eta bakarra, Marí a de las Nieves Amalia Pilar Luisa Javiera Theresa Ygnacia Fausta Manuela Ramona Aguirre Acedo. Izenen arrosario luze hori alde batera utzita, Amalia izenez ezagutu zuten geroztiek gerora. Gasteizko San Bizente elizan bataiatu zuten hura ere.

Ortuño gizon ilustratua eta jantzia zen, zientzien zale amorratua eta, arestian esan dugunez, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kidea. Zientziaren eta kulturaren arloan garaiko erakunde garrantzitsuenetako bateko kidea. Eta kulturarekiko grina horrek hauspoturik, ideia liberalen aldekoa eta *entziklopedista* zen, Espainia ilun eta atzeratu hartan.

Biek ala biek bere egiten zituzten ideia modernistak eta horien alde egiten zuten. Gaurko ikuspegitik xaloak edo soilak begitanduko zaizkigu ideia haiek, baina garaiko gizartean oso garrantzitsuak izan ziren. Horren harira, aintzat hartzekoa da Espainiako entziklopedista gehienak Euskal Herrian bizi zirela. Beraz, ezagun da lehen eta orain penintsulako aurrendari izan zela eta dela gure herria.

Gasteiz al palacio de Escoriaza-Esquivel muy próximo a su domicilio el fantástico palacio de Montehermoso, en la parte alta de Gasteiz.

El matrimonio se celebró el 11.05.1800 en la iglesia de San Vicente de Gasteiz, el novio casi le doblaba en edad. Él tenía 33 años y ella 16.

Fueron testigos de la boda el tío de su marido Ignacio Corral Aguirre, del Consejo de S.M. y embajador en Constantinopla, otro tío consorte, en este caso Joaquín Eguia Aguirre, marques de Narros, uno de los fundadores de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais, casado con María Luisa Corral Aguirre y por su parte su tío Manuel Acedo Atodo, que había sido alcalde de Tolosa.

Podemos decir que este matrimonio por el linaje y cultura de los contrayentes, era el más ilustre e ilustrado de la Vitoria de fines del siglo XVIII y comienzos del XIX.

Realmente los títulos que aportaba cada uno de ellos era impresionante, el marido además de VI marques de Montehermoso, era duque de Ciudad Real, conde de Luces, conde de Triviana, marques de Mortara y marques de Olias, pariente mayor de las casas de Butron y Mujica en Bizkaia; su esposa, nuestra protagonista era IV Condesa del Vado, señora del mayorazgo de Sarria con el señorío de Erenchun, el Vado y la torre-fuerte de Ascarza en Araba y el patronato de la capilla del Carmen o de las Reliquias en San Vicente de Gasteiz, también el mayorazgo de Villafañe en Zamora, por el cual era Pariente Mayor del linaje del Infante Don Juan de Valencia, hijo de Alfonso X el Sabio, todos esos títulos provenían de la madre, por parte del padre era III Condesa de Echauz, mayorazgo de Acedo en Nafarroa al que le correspondía asiento y voto en las Cortes de Navarra, con las pechas del lugar de Mendilabarri en la Berrueza, el mayorazgo de Riocavado con el señorío de los pueblos de Santa Cruz del Valle de Urbion, Riocavado de la Sierra, Soto y Garganchon en Burgos y el patronato de Santo Domingo de la Calzada en la Rioja, mayorazgo de Atodo en Tolosa, mayorazgo de Soran en Lenitz Gatzaga, mayorazgo de Doypa en Gasteiz.

Al poco tiempo de celebrarse el enlace, nació la primera y única hija; el 06.08.1801 nacía en Gazteiz y era bautizada en la iglesia de San Vicente, María de las Nieves Amalia Pilar Luisa Javiera Theresa Ygnacia Fausta Manuela Ramona Aguirre Acedo, que dejando aparte la consabida larga lista de rimbombantes nombres sería posteriormente conocida simplemente como Amalia.

Hortuño era un hombre ilustrado, amante de las ciencias, ya hemos visto que era miembro de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, una de las entidades de mayor nivel científico y cultural que había en la época, y esta cultura le hacía ser de ideas liberales y *enciclopedista*, en una España oscura y atrasada.

Ambos profesaban ideas modernistas, que aunque en la actualidad nos parezcan simples, en aquel momento tenían una gran importancia, la mayoría de los enciclopedistas españoles residían en Euskal Herria, que era entonces y como también lo es ahora lo más avanzado de la península.

# 5.

## Josef I.a.

Jose I



## 5. JOSEF I.a.

Hori dela eta, 1808ko maiatzaren 19an, Mostolesen Independentzia Gerrari edo Frantzesadari hasiera eman zion bandoa eman eta lasterrera, ideia modernoen aldeko eliteek Baionako Konstituzioa sinatu zuten Baionan. Napoleon ahalegin betean ari zen Espainian bestelako monarkia bat ezartzeko –horretarako izendatu eta jarri zuen Josef I.a anaia Espainiako errege–, eta, hain zuzen, monarkia horri legitimotasuna emateko hitzartu zuten goi-mailako pertsona horiek Baionako Konstituzioa.

Josef I.ari, gerora, *Pepe Botella* goitizena eman zion herriak, eta hainbat kontu egotzi zizkion, gaztelaniazko pasadizo honek agerian uzten duenez: Pepe Botella sal al despacho, ¡ *No puedo, estoy borracho!* Errealitatea, ordea, guztiz bestelakoa zen, ondo dakigunez, Josef I.a ia abstemioa baitzen, eta gainera, errege sentibera eta jantzia, artearen zale amorratua, berritzailea eta balio handikoa. Zer diren gauzak, unibertsitate-titulua izan zuen Espainiako errege bakarra izan zen (Borboikoak ez dira nabarmendu inoiz, ez lehen eta ez orain, letrekiko zaletasunagatik), bai eta Espainiako lehen errege konstituzionala ere. Haren eskutik indargabetu zen Inkisizio Santuaren erakunde doilor eta iluna, nahiz eta gerora, herri xeheak, fraide kaskamotzek eta aristokraziako zenbait zokor-mazok akuilaturik, berriro ere Inkisizioa indarrean jartzeko eskatu zuen sutsu, " Gora kateak!" oihukatzen zuela. Espainia lehengora itzuli zen berriro, garai bateko iluntasun eta atzerapenera.

Baionako Konstituzioa berresteko, batetik, eta Josef I.a Espainiako errege izendatzeko, bestetik, Lapurdiko herri horretan elkartu ziren haize berri haiek hauspotu zituzten pertsonaia nagusiak. Han zen, noski, Josef I.a, errege izango zena, eta han zen, besteren artean, Montehermosoko markesa, Konstituzioa berrestera joana. 120 diputatu espero zituzten eta 90 baino ez ziren agertu batzarrera. Beste hainbaten artean, Baionan zen Joseph Caraben Husarretako kapitaina ere, Saint Espriteko zubian enperadoreari harrera egiteko ohorezko guardiako kidea. Aurrerago jakingo dugu nor zen Caraben hori. Gontaut-Biron jenerala zen tropa haren buru, Carreseko jauregiaren jabea. Handik urte batzuetara, gure protagonistak erosi zuen jauregi hori.

Gutxiago edo gehiago hurbilekoak ziren guztiak, baina soilik Joseph I.ak eta Montehermosoko markesak ezagutzen zuten elkar.

Joseph I.a borondate oneko gizona zen, baina politikarako zentzu gutxikoa eta jardun militarrerako are gutxiagokoa; ondorioz, ez zen gai izan Espainiako errege gisa bazela nor erakusteko. Eta muturra sartzera zetorren kanpotartzat hartu zuten herritar gehienek, klase jantzienek izan ezik. *Frantsestuek*, alegia. Ez zuen nahi izan erregetza eta agintea indarrez ezarri, eta hortik etorri zen bere galbidea.

Josef I.ak Irundik barna gurutzatu zuen muga, 1808ko uztailaren 9an, Espainiako koroa hartzeko, eta biharamunean, Tolosan hartu zuen ostatu lehen aldiz, non eta Atodo jauregian, gerora lagun izan zuen Pilar Acedoren jaiotetxean. Berak, ordea, artean ez zekien horrelakorik. Bi egunen buruan,

## 5. JOSE I

Por ello el 19.05.1808, poco después de que en Móstoles se diese el bando con el que dio comienzo la denominada Guerra de la Independencia o más vulgarmente la Francesada, personas de la élite del país con ideas modernas, habían firmado en Baiona la denominada Constitución de Bayona con la que se pretendía dar legitimidad a la nueva monarquía que Napoleón trataba de instaurar en España poniendo como rey a su hermano José con el nombre de José I.

El mismo que luego sería conocido por el populacho como Pepe Botella, y de quien se contaba la anécdota: *Pepe Botella sal al despacho, ¡No puedo, estoy borracho!* Pero la realidad como ya sabemos era muy distinta, era prácticamente abstemio y además era un rey sensible y culto, amigo de las artes, innovador y valioso, y curiosamente el único rey de España con titulo universitario (no se caracterizaron ni se caracterizan los Borbones por su afición a las letras) y además el prime rey constitucional de España que entre otras acciones positivas que realizó fue la de abolir la tristemente célebre y siniestra Santa Inquisición, que poco tiempo después el populacho enfebrecido por prédicas de frailes motilones y aristócratas de tres al cuarto reclamaba con ahínco su vuelta al mismo tiempo que gritaba *¡Vivan las caenas!*. España volvía a su realidad atrasada y oscurantista.


**Josef I.a** ***/José I.***

Con motivo de esta Constitución de Baiona y del nombramiento de José I como rey de España se reunieron en esta localidad labortana los principales personajes de esta trama, allí estaba, naturalmente, José I, el futuro rey, también el marques de Montehermoso que había sido uno de los personajes españoles que había ido a ratificar la Constitución, se esperaban 120 diputados y solo fueron 90 y había un tercer personaje, un capitán de húsares, Joseph de Caraben que formaba parte de la guardia de honor encargada de recibir al Emperador en el puente de Saint Esprit, esta tropa estaba mandada por el general Gontaut-Biron, propietario del palacio de Carresse que posteriormente adquirirá nuestra protagonista.

Todos ellos están muy próximos, pero solo José I y el marques de Montehermoso se conocían.

José I es un hombre de buena voluntad pero con poco sentido político y menos militar, no será capaz de hacerse notar como un rey de España, siempre será considerado un intruso por toda la población, excepto por las clases mas cultivadas, que son los llamados *afrancesados*. Parece ser que no esta dispuesto a imponerse por la fuerza, esa será su perdición.

Este José I llegó a España a hacerse cargo de la corona, cruzó la frontera de Irún el 09.07.1808 y al día siguiente llega a Tolosa, donde se aloja por primera vez, y curiosamente lo hace en el palacio de Atodo, lugar donde nació la que posterior-

1808ko uztailaren 12an, Madrilgo Gorterako bidean, Gasteizen egin zuen geldialdia.

Han, Montehermoso jauregian hartu zuen ostatu, Espainiako errege-erreginek Gasteizko egonaldietan ohi zutenez. Baionara bidean, jauregi horretan berean hartu zuen ostatu Fernando VII.ak, egun batzuk lehenago. Koroa Karlos IV.a aitarengan abdikatzera joan zen Fernando VII.a Baionara eta aitak, aldi berean, Napoleonen esku utzi zuen erregetza, Frantzia barnealdeko jauregi arranditsuen eta pentsio oparoen truke. Txanponen txin-txina eta gona kontuak dira, nonbait, Borboikoak iratzartzen dituzten gauza bakanetakoak.

Gasteizen, beraz, afari batean ezagutu zuten elkar Josef I.ak eta gure protagonistak, eta erregea mira eginda geratu zen neskaren edertasunarekin. 24 urte zituen orduan Pilarrek, gaztetasunaren gorputzaldi bete-betean zegoen.

Frantziako gortesau batek honela deskribatu zuen: " *C´etait une femme qui, sans être de la première jeunesse, était encore extrêmente agréable; elle était élégante, bien tournée, parlait parfaitemente italien et français, chantait agréablement, pinçait de la guitarre, faisait des vers dans toutes les langues, et peignait assez bien en miniature pour rendre les traits. A tous ces talents, elle joignait la connaissance du monde et de l´esprit de la coquetterie*" (6).

*(Gazte-gaztea ez izan arren, emakume oso atsegina zen, elegantea, gorpuzkera ederrekoa, bikain mintzatzen zen italieraz eta frantsesez, kantaria ere bazen, gitarra jotzen zuen, bertsoak osatzen zituen hizkuntza guztietan eta miniaturak margotzen zituen. Eta talentu horiez guztiez gain, munduaren ezaguera handia zuen eta izaera xarmanta.)*

Beste jeneral frantses batek, berriz, honela deskribatu zuen: " *...était une dame jeune, belle, spirituelle, surtout impérieuse, coquette même, et qui, à une grande fortune, joignait les manieres et le ton que donnent une haute position sociale et la fréquentation du grand monde et de la Cour.*" (7).

*(Dama gaztea zen, ederra, espirituala eta xarmanta. Aberastasun handiak eta modu finak uztartzen zituen, eta goi-mailako klase sozialak eta munduan hara-hona ibiltzeak nahiz gortea maiz bisitatzeak bereak dituen moldeak eta doinuak zituen.)*

Senarraren deskribapena, aldiz, zertxobait apalagoa zen. Markesa andrea hainbeste lorez eta laudorioz deskribatu zuen gortesauak berak hauxe idatzi zuen senarrari buruz: " *...était un homme grand, original, très content de lui, ennemi decide de l´Inquisition, des moines et des prêtres, et quelque chose de plus qui se deviene.*" (8).

*(Gizon altua zen, originala, bere buruaz ziurra, Inkisizioaren, fraideen eta apaizen aurkari irmoa.)*

Kleroari buruzko burlak eta aipamenak ohikoak zituen, nonbait, markes jaunak, baina ahotsa ere fin-fina omen zuen eta hari buruzko deskribapenak

mente será su compañera, pero no lo sabe y dos días mas tarde el 12.07.1808 en el camino hacía la corte de Madrid se detuvo en Gazteiz.

Allí se alojó en el Palacio de Montehermoso que era la residencia habitual de los monarcas españoles en Gasteiz, también allí lo había hecho Fernando VII camino de Baiona a donde fue a abdicar de su corona en su padre Carlos IV quien a su vez cedería la misma a Napoleón, todo ello a cambio de alojamientos en fabulosos palacios del interior de Francia y suculentas pensiones, el tema de los dineros y de las faldas deben ser de las pocas cosas capaces de hacer espabilar a un Borbón.

Allí en una cena conoció a nuestra protagonista y quedo admirado de su belleza, ella tenía en aquel momento 24 años, estaba en el apogeo de su esplendor físico.

Un cortesano francés la describía así: *"C´etait une femme qui, sans être de la première jeunesse, était encore extrêmente agréable; elle était élégante, bien tournée, parlait parfaitemente italien et français, chantait agréablement, pinçait de la guitarre, faisait des vers dans toutes les langues, et peignait assez bien en miniature pour rendre les traits. A tous ces talents, elle joignait la connaissance du monde et de l´esprit de la coquetterie."* (6)

*(Era una mujer que sin ser joven, era muy agradable, era elegante, bien conformada, hablaba prfectamente italiano y francés, cantaba, tocaba la guitarra, hacía versos en todas las lenguas y pintaba miniaturas. A todos estos talentos unía un conocimiento del mundo y un espíritu coqueto.)*

Otro general francés la describía de esta otra manera. *"... était une dame jeune, belle, spirituelle, surtout impérieuse, coquette même, et qui, à une grande fortune, joignait les manieres et le ton que donnent une haute position sociale et la fréquentation du grand monde et de la Cour."* (7)

*(Era una dama joven, bella, espiritual, coqueta y que a una gran fortuna unía las maneras y el tono que dan una posición social elevada y la frecuentación del mundo y la corte.)*

De su marido, en cambio, la descripción era algo diferente, el mismo cortesano que describía con tantos elogios a la marquesa, del marqués decía: *"... était un homme grand, original, très content de lui, ennemi decide de l´Inquisition, des moines et des prêtres, et quelque chose de plus qui se deviene."* (8)

*(Era un hombre alto, original, muy pagado de si mismo, enemigo decidido de la Inquisición, de los monjes y de los curas.)*

Las burlas y comentarios sobre el clero debían ser habituales en el señor marqués, pero también debía tener una voz aflautada y la descripción que hacen, no ocultan la posibilidad de tener una tendencia homosexual.

En esa cena, en un momento del posterior baile, quedó encantado con el porte de la marquesa, que hacía honor a aquel consejo que su suegro, decía en su discurso

(6) Mé moires du Stanislas du Girardin. Paris 1834 / *Mémoires du Stanislas du Girardin. Paris 1834.*
(7) Mé moires du gé né ral-baron Thiebault. Paris 1895 / *Mémoires du général-baron Thiebault. Paris 1895.*
(8) Mé moires du Stanislas du Girardin. Paris 1834 / *Mémoires du Stanislas du Girardin. Paris 1834.*

aintzat hartuta, joera homosexualak izatea ere litekeena zela zioten bere garaikideek.

Afari hartan, afalosteko dantzaldian zehazki, erregea erabat liluratuta geratu zen markesaren gorpuzkera lirainarekin. Pilarrek, itxura denez, ohore egiten zion aitaginarrebak emakumeari buruzko diskurtso filosofiko-moralean emandako gomendioari: *" Dantza egin behar baduzu, ez egin lotsaz eta behartuta ateratzen dutenak egingo lukeen bezala, dotoreziaz eta handikiro baizik, graziaz eta begirunez..."* .

Hartu-eman soilean geratu zen afari hartakoa. Lilura, ordea, ez zen gauarekin batera itzali. Biharamunean, desenkusa helarazi zien anfitrioiei eta gortesauei, afari osoa Montehermosoko markesari eskaini ziolako, eta gainerako afaltiarrei ez zielako arreta handirik jarri. Gasteiztik Madril aldera jarraitu zuen eta 1808ko uztailaren 20an egin zuen sarrera gortean. Ezin esan, ordea, herriak berotasun handiz hartu zuenik. Nolanahi ere, hala esan zuen Josef I.ak lehen agerraldi hartan: *" c´est pour les espagnols et non pour nous que nous regnerons" (espainiarrentzat izango gara erregetzan)*. Madrilen finkatu zuen gortea, baina ez denbora askorako; izan ere, frantsesek Bailengo gudua galdu ondoren, 1808ko uztailaren 18an, egoera militarra asko nahastu zen penintsulan, batez ere hegoaldean, eta arazoak saihesteko, Josef I.ak iparraldera jo zuen uztailaren 31n, gortean sartu eta 11 egunera, Frantziako mugara hurbildu eta sor zitezkeen gorabeheretatik salbu egoteko.

Arrazoia edozein zela ere, aurrez Montehermosoko markesa ezagutu izan zuelako menturaz edo beste arrazoiren batengatik, 1808ko irailaren 22an Gasteizen ezarri zuen gortea, eta horretarako, hiribilduko eraikin onena hautatu zuen: Montehermosoko markesen jauregia bera, nola ez. Eta markesek beren jabegoko beste etxebizitza batera joan behar izan zuten bizitzera, kalearen beste aldera.

Josef I.ak erosi egin zuen jauregia 1808ko urriaren 30ean, 2.080.000 errealen truke. Prezio hori zehaztu zuen Manuel de Echenavo San Fernandoko Errege Akademiako arkitektoak eta Burgosko Bideko zuzendariak jauregirako eta haren jabegoetarako. Cabarruseko kondeak ordaindu zuen diru hori, Josef I.aren diruzainak: 400.000 erreal eskudirutan eta gainerakoa konpentsazio-agiri baten bidez. Dokumentu horren arabera, Montehermosoko markesak konfiskatutako edozein finka eskura zezakeen, ordaintzeko geratu zen balioa berdindu arte.

Negozio ona egin zuen, nonbait, markes jaunak; izan ere, Josef I.ak lehen zaldizainari, Girardineko kondeari, salerosketaren inguruan zer iritzi zuen galdetu zionean, hark zurikeriarik gabe honela erantzun omen zion: " [Jauregiak] ez du balio hainbeste erreal ezta markesa barnean dela ere" .

Aldi hartan, 1808ko azaroan, Napoleon Bonaparte bera sartu zen Espainian, Grand Armee armadaren buru, penintsulako egoera militarra konpontzeko asmoarekin. Napoleonen armada handi eta eraginkorra, 200.000 infantez eta 50.000 zaldunez osatua, eta korsikar txikiak modu miresgarrian

filosófico-moral sobre la mujer: *"si ha de bailar, no salga como a quien sacan a la vergüenza, sino con un porte majestuoso, lleno de gracia y de decencia…"*

Todo quedó en una simple toma de contacto y en una queja que transmitió al día siguiente a sus anfitriones y cortesanos excusándose de que había dedicado todo el tiempo de la cena a la marquesa de Montehermoso, dejando sin atender al resto de los comensales; siguió el viaje a Madrid donde entró el 20.07.1808 con muy poco entusiasmo popular, a pesar de ello dice: *"c´est pour les espagnols et non pour nous que nous regnerons"* (es para los españoles para los que vamos a reinar) y estableció su corte allí pero sería por poco tiempo puesto que después de la derrota francesa en la batalla de Bailen, 18.07.1808, la situación militar estaba revuelta en la península, sobre todo en el sur y para evitar problemas, José I salió a los 11 días de su entrada, el 31.07.1808 hacia el norte, para acercarse a la frontera francesa y estar más a salvo de posibles eventualidades adversas.

Por la razón que fuese, tal vez por haber conocido a la marquesa de Montehermoso previamente o por cualquier otra, estableció su corte en Gasteiz el 22.09.1808 y para ello eligió como sede de la misma el edificio mejor de la villa, que era el palacio de los marqueses de Montehermoso, desplazándose estos a otra vivienda de su propiedad situada al otro lado de la calle.

Compró el Palacio el 30.10.1808 por 2.080.000 reales que era el precio que del Palacio y sus pertenecidos hizo Don Manuel de Echenavo, arquitecto de la Real Academia de San Fernando y Director del Camino de Burgos, que hizo de tasador y que pagó el conde de Cabarrus que hacía de tesorero de José I, el cual pagó 400.000 reales en efectivo y el resto mediante un documento de compensación que permitiría al marqués de Montehermoso adquirir cualquier finca requisada por el valor restante.

Debió hacer un buen negocio el señor marqués, pues se cuenta que cuando José I preguntó a su primer caballerizo, el conde de Girardin, qué opinaba de la transacción, éste le contestó: *"No los vale ni con la marquesa dentro"*.

En ese tiempo, en noviembre de 1808 entró el propio Napoleón Bonaparte en España con la Grand Armee, con ánimo de arreglar la situación militar de la península. Su grande y eficiente ejército de 200.000 infantes y 50.000 caballos admirablemente dirigido por el pequeño corso no iba a dejar que la ocupación francesa no fuera una realidad.

Pero volvamos a nuestra protagonista, la historia del comienzo de su relación con el rey José I es francamente novelesca.

Parece ser que un día José I observó que en la vivienda de enfrente se movía una joven de gran belleza, José I que aunque Bonaparte, que no Borbón, tenía una gran atracción hacia el otro sexo, además de que su esposa Julie Clary no le había acompañado a España, fue una reina de España que nunca pisó España, sintiendo un deseo sexual irrefrenable hacia aquella mujer, mandó a su criado Cristóbal para que tratara de obtener los favores de la misma, indicándole que no debía escatimar en el precio; se dice que le ofreció 200 napoleones, equivalentes a unos 1.000 euros

zuzendua, ez zegoen prest Frantziako okupazioa bertan behera utzi eta amore emateko.

Itzul gaitezen, ordea, gure protagonistarengana; izan ere, Josef I.aren eta Pilarren arteko harremanaren hasiera egiaz eleberri baterako modukoa izan zen.

Antza denez, egun batean Josef I.ak gazte lerden eta eder bat ikusi nuen pareko etxean batera eta bestera. Josef I.ak, Bonaparte izan arren eta ez Borboikoa, berebiziko erakarmena sentitzen zuen beste sexuarekiko, eta gainera, Julie Clary emaztea ez zen berarekin Gasteizen. Espainiako erregina izan zen, Espainiako lurrik inoiz zapaldu gabe. Hala, erregeak emakume harenganako sexu-grina menderaezina sentitu zuen, eta Cristobal morroia bidali zuen, haren mesedeak eskura zitzan, eskainitako diruari ez erreparatzeko aginduta. Esaten da 200 napoleon eskaini zizkiola, gaur egungo 1.000 euro inguru. Josef I.a erotu zuen emakume beltzaran eder hura, ordea, ez zen gure protagonista, haren 7 urteko alaba Amalitaren haurtzaina baizik.

Jakina, hainbeste lausengu eta batez ere hainbeste txanpon eskainita, gazteak ameto eman zio erregearen desirari. Itxura denez, Gasteiz osoak jakin zuen bi maitaleen suharraren berri, baita haurtzainaren nagusiak ere, Montehermosoko markesa andreak, alegia.

Gasteizko tertuliaren batean, harridura ezkutatu ezinik, hala esan bide zuen gure protagonistak: “ *Erregea bezalako gizon atsegin batek goragoko mailako pertsonengana ez jotzea ere...Izan ere, seguru nago Gasteizen badirela bere arreta ekuratzea izugarri atsegin luketen emakumeak.”* (9).

Huraxe izan zen bien arteko harremanaren lehen garra; izan ere, garaiko Gasteiz txikia zen eta are txikiagoa Josef I.aren gortearekin hartu-emana zuen gortesauen eta aristokraziako jendearen zirkulua. Hala, erregeak, lausengu haren berri jakin zuelarik, eta Gasteizko emakumeen gain izan zezakeen erakarmenarekin harropuzturik, festa bat antolatu zuen eta, nola ez, Montehermosoko markesa ere gonbidatu zuen jai hartara.

Erregeak bazekien aurreko afaritik markesa emakume ederra zela ederren artean, baina harekin harremana estutu ahala, abegikor sumatu zuen eta, ondoren, gaueko maitasun-oldarraldian, agi denez, aristokraziako dama ez zen haurtzaina baino atzerago geratu.

Egiaz, harribitxi fina zuen aurrean, aristokrata bat, jantzia, sexu aldetik askea eta herabetasuna galdua eta, gainera, ezkontzaz kanpoko harremana ontzat ematen zuen senarrarekin ezkondua.

Garai bertsuan, 1808ko azaroaren 20an, Frantziak garaipen erabakigarria lortu zuen Somosierrako guduan, eta horrek Madrilerako ateak zabaldu


463

Vitoria 30 de octubre de 1808

En la Ciudad de Vitoria a treinta de octubre de mil ochocientos y ocho ante mi el Escribano y testigos, comparecieron por la una parte el Exmo. Señor D. Andres Fran.co Miot, Conde de Melito, Caballero Comendador dela Legion de Honor, y Gran Cruz dela Real Orden delas dos Sicilias, Superintendente General dela Real Casa; y por la otra el Exmo. Señor D. ...

Montehermoso jauregiaren salerosketa eskritura / Escritura de compra-venta del Palacio de Montehermoso.

actuales; aquella belleza morena que tanto atrajo al rey José I no era nuestra protagonista, sino la niñera de su hija Amalita de 7 años.

Naturalmente ante tantos halagos y sobre todo monedas, la joven accedió a los deseos del rey y parece ser que todo Gasteiz se enteró del lance amoroso y como no podía ser de otra manera, también se enteró de ello su ama, la marquesa de Montehermoso.

[9] VIDAL-ABARCA, Juan. LINAJES ALAVESES. LOS AGUIRRE: MARQUESES DE MONTEHERMOSO. Sancho el Sabio Erakundearen aldizkaria. XIX. urtea. XIX. Liburukia. Gasteiz, 1975. / *VIDAL-ABARCA, Juan. LINAJES ALAVESES. LOS AGUIRRE: MARQUESES DE MONTEHERMOSO. Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Año XIX. Tomo XIX. Vitoria 1975.*

zizkion armada frantsesari. Napoleon 1808ko abenduaren 2an iritsi zen Madrilera, baina ez zen hiribururaino bertaraino sartu; Chamartinen geratu zen, Infanterriko dukearen jauregian. Zurrumurruen arabera, behin baino ez omen zen ibili pasieran Madrilgo kaleetan, nor zen isilean gordeta, Errege Jauregia bertatik bertara ezagutzeko asmoarekin, eta denbora luzez egon omen zen Felipe II.aren erretratuari begira, Europan eta itsasoaz bestalde ondasun handien jabe izan zen erregearen erretratuari.

Operazio militarrak egonkorturik, berriro ere Madrilera itzultzeko moduan zen Josef I.a. Hain zuzen, 1809ko urtarrilaren 22an sartu zen bigarren aldiz hiriburuan, eta orduko hartan ongietorria zertxobait beroagoa izan zen lehendabiziko aldian baino. Erregearen ondoan ziren Montehermosoko markesak, jada bere gorteko kide gisa.

Gortea berriro ere Madrilen finkaturik, markesak hara eta hona laguntzen zion erregeari: Madrilera itzuli zela ospatzeko San Isidro elizan abestu zuten Te Deum hotsandikoan elkarren aldamenean ziren; zezenketetan ere bata bestearen ondoan esertzen ziren errege-palkoan...

Ospakizun eta jai guztietan elkarrekin ziren, baita harrera, dantzaldi eta afari guztietan ere.

Pilar Acedoren lekuan nahiko zuketen Madrilgo emakume guztiek; erreginaren pare jokatzen zuen eta, "de facto", erregina zela esan zitekeen. Tolosan, Oria ibaiaren ertzean sortutako erregina.

Senarrak ontzat eman zuen egoera, Josef I.aren aldeko sutsua baitzen. Eta erregeak, ordainean-edo, sortu berri zuen Espainiako Errege Ordena berriaren zaldun izendatu zuen. Herri xeheak, " *Berenjenaren Ordena*" esaten zion erregearen ordena horri.

Kultura aldetik pertsona jantzia izanik, bestelako hainbat jardueratan ere lagundu zuen Montehermosoko markes jaunak. Esaterako, Josef I.ak Antzerkiko Ikuskatzaile Nagusi izendatu zuen eta hainbat urtez jardun zuen zeregin horretan. Garai hartako Madrilen, egile espainiar frantsestuen obra ugari programatu zituen, eta, zenbait egileren iritziz, Madrilgo historian antzerkiari dagokionez izan den aldirik interesgarrienetakoa izan zen (10).

Baina Josef I.ak ez zuen aginpiderik militarren gainean, jeneralek ez zioten kasurik egiten, eta soilik enperadorearen aginduei obeditzen zieten.

Gainera, bazen bi anaien artean halako dema: Josef I.a, lege-gizona zen eta Espainian unibertsitate-titulua eduki zuen errege bakarra; anaia, berriz, militar peto-petoa zen; Josef I.ak espainiar guztien errege izan nahi zuen eta gauzak ahalik eta hobekien egin nahi zituen; Napoleonek, aldiz, konkistatutako herrialde bat besterik ez zuen ikusten eta bere hegemonia militarra ziurtatu baino ez zuen egin nahi.

Comentado el hecho en alguna de la tertulias vitorianas, nuestra protagonista, manifestando su sorpresa, llegó a decir que: *un hombre tan agradable como S.M no se haya dirigido a personas de rango más elevado, pues estaba segura que en Vitoria había mujeres que se sentirían infinitamente halagadas de ser el objeto de sus atenciones* (9).

Este fue el comienzo de las relaciones, pues el Gastez de aquella época era pequeño y más el reducido círculo de cortesanos y gente de la aristocracia que se relacionaba con la corte de José I; éste al enterarse del halago, se sintió orgulloso de su teórico ascendiente sobre el sexo femenino vitoriano y preparó una fiesta a la que invitó a la marquesa de Montehermoso.

Su belleza ya la conocía de la anterior cena, pero al tratar de relacionarse con ella de una manera más estrecha, la encontró totalmente receptiva y posteriormente en los embates amorosos de la noche parece ser que la aristócrata no quedó a la zaga a su niñera.

Realmente tenía ante sí una delicada joya, una aristócrata, culta, con una sexualidad desinhibida y además, casada con un esposo que no se oponía a la relación extramarital.

En ese tiempo se dio la decisiva victoria de la batalla de Somosierra del 30.11.1808, que abrió las puertas de Madrid al ejército francés; Napoleón llegó el 02.12.1808 a Madrid pero no entró en la capital, se hospedó en Chamartin en el palacio del Duque del Infantado; se dice que paseó una sola vez por las calles de la villa del oso y del madroño, y de incógnito, con el ánimo de conocer el Palacio Real y se cuenta que quedó largo tiempo admirando un retrato del rey Felipe II, un rey que tuvo inmensas posesiones en Europa y Ultramar.

Estabilizadas las operaciones militares, pudo de nuevo José I volver a Madrid donde realiza su segunda entrada el 22.01.1809, en esta ocasión el recibimiento es algo más efusivo que en la primera entrada y le acompañan a la capital los marqueses de Montehermoso, ya como miembros de su corte.

Vuelve a instalarse la Corte en Madrid y la marquesa le acompaña a todas partes, desde el Te Deum solemne que se canta en la iglesia de San Isidro para conmemorar su llegada a Madrid hasta las corridas de toros en las que está en el palco real junto a José I;

Está con él en todas las solemnidades y festejos, sin olvidar las recepciones, bailes y cenas.

Es la envidia de todas las mujeres de Madrid, se comporta como una reina, y de hecho lo es, es una reina "de facto", surgida de Tolosa, a las orillas del río Oria.

Su esposo consiente en la situación, es un gran defensor de José I que le nombra caballero de una nueva orden que él ha creado, la Orden Real de España, conocida vulgarmente como la *"Orden de la Berenjena"*.

[10] **ROMERO PEÑA, Mercedes. El teatro en Madrid a principios del siglo XIX (1808-1814)** / *ROMERO PEÑA, Mercedes. El teatro en Madrid a principios del siglo XIX (1808-1814).*

Frantsesek denbora gutxi zuten militarki jarduteko eta, ondorioz, ez zuten gotorlekurik eta harresirik eraiki. Nahiago izan zuten lurrean lubakiak zulatu, lan azkarragoa baitzen. Retiroko parkean zulatu zuten Madrilgo lubakirik garrantzitsuena eta handiena, baina Josef I.ak, Madril ederragotzeko afanean, desegitea erabaki zuen. Jakina, berehala jarri zitzaizkion aurrean Napoleonen jeneralak. Hona hemen Napoleonek 1809ko irailaren 26an Schönbrunneko Clarke jeneralari bidalitako oharra, aski interesgarria: " *M. le Gl. Clarke, faites connaitre au roi d´Espagne que je vois avec peine qu´il ait cessé de faire travailler au Retiro; que la politique voulait qu´on travaille jour et nuit a les fortifications et pendant dix ans; que si les ouvrages qui avaient été tracés sont finis, il en fasse tracer d´autres qui donnent a la place en grand relief et en prolongant la défense; que j´aurais désiré également qu´on ne cessat pas de travailler aux fortifications de Somosierra, si nécessaires pour proteger la communications avec Aranda et Burgos"* . Bistan da bi anaien interesak oso bestelakoak zirela.

*(Clarke jeneral jauna, jakinarazi Espainiako erregeari penaz hartzen dudala Retiroko gotorlekua eraikitzeko lanak bertan behera utzi izana; politikaren asmoa litzateke gau eta egun bertan lan egitea, hamar urtez; diseinaturik zeuden obrak bukaturik baleude, beste batzuk egin beharko lirateke plazari erliebea emateko eta defentsak luzatzeko; Somosierrako gotorlekuetako lanak ere ez uztea nahiko nuke, premiazkoak baitira Aranda eta Burgoserako bideak babesteko.)*

Josef I.ak kaleak konpondu eta plazak zabaldu nahi izan zituen Madril zaharreko kale estuen artean, haizeberritu egin nahi izan zuen hiri narrasa, antzerki-funtzioak egin nahi izan zituen eta zezenketak, berehala jabetu baitzen horiek zirela garaiko espainiarren bi zaletasun nagusiak. Izan ere, artean ez zegoen ez futbolik, ez TVErik ez EITBrik. Herri xeheak *Pepe Plazuelas* goitizena jarri zion, abiarazi zituen hirigintza-obra ugariak zirela eta. Arkitekturan hiri zahar bat " harrotzea" esaten zaiona hartu zuen helburutzat; hau da, Madril zaharreko kale eta kale estuen artean plazak eraikitzea eta tarteak zabaltzea.

Montehermosoko markesa andrea Masserano jauregian jarri zen bizitzen, Lucotte jeneralaren familiarekin. Hugo jenerala sarri joaten zen jauregira bisitan, eta jauregiko zoko-bazterretan, haren seme Victor jolasean ibiltzen zen bere adintsuko neska batekin; bai, Amaliarekin, markesaren alabarekin. Victor Hugok halaxe deskribatu zuen neska, urte batzuen buruan: " *petite espagnole, avec ses grandes yeux, sa peau brune et doree, ses levres rouges et ses joues roses, l´Andalouse de quatorce ans: Pepa" , (espainiar txikia, begi handikoa, larruazal beltzarana, ezpain gorriduna eta masail gorrikoa, 14 urteko andaluziarra, Pepa)*. Antza denez, Amaliari Pepa esaten zioten laguntxoek eta zerbitzariek.

Victor Hugok beste olerki luze bat idatzi zuen gerora, Masserano jauregian igarotako arratsaldeak eta jolas haiek gogoan.

Su espíritu culto le permitía colaborar en otras actividades, José I le nombra Inspector General de Teatro, actividad que desarrolla en el Madrid de aquella época, con muchas obras de autores españoles afrancesados, que en opinión de algunos autores hacen una de las épocas de teatro más interesantes de la historia de Madrid. (10).

Pero José I, el rey, no manda ante los militares, los generales no le hacen caso, solo reciben ordenes del emperador.

Además hay un grave problema entre José I y su hermano, él es un hombre de leyes, el único rey de España con título universitario y su hermano es un militar, el quiere reinar para todos los españoles y quiere hacer las cosas lo mejor posible, su hermano solo ve un país conquistado y quiere asegurar su hegemonía militar.

Los franceses tienen poco tiempo para actuar militarmente y por ello no construyen fortificaciones, prefieren las trincheras cavadas en la tierra más rápidas de construir, una de esas fortificaciones de trincheras estaba en el parque del Retiro, la más importante de Madrid, y José I que trataba de embellecer Madrid, piensa en desmantelarla, a lo que, lógicamente, se oponen los generales napoleónicos, hay una interesante nota del 26.09.1809 que Napoleón manda al general Clarke de Schönbrunn, dice así: *"M. le Gl. Clarke, faites connaitre au roi d´Espagne que je vois avec peine qu´il ait cessé de faire travailler au Retiro; que la politique voulait qu´on travaille jour et nuit a les fortifications et pendant dix ans; que si les ouvrages qui avaient été tracés sont finis, il en fasse tracer d´autres qui donnent a la place en grand relief et en prolongant la défense; que j´aurais désiré également qu´on ne cessat pas de travailler aux fortifications de Somosierra, si nécessaires pour proteger la communications avec Aranda et Burgos"*; los intereses son diferentes entre los dos hermanos.

*(Sr. General Clarke haced conocer al rey de España que yo veo con pena que haya cesado de trabajar en la fortificación del Retiro; que la política quisiera que se trabajase día y noche y durante diez años; que si las obras que se había diseñado hubieran estado acabadas, habría que trazar otras que den relieve a la plaza y prolonguen las defensas; yo desearía también que no se dejase de trabajar en las fortificaciones de Somosierra, tan necesarias para proteger las comunicaciones con Aranda y Burgos.)*

José I quiere arreglar calles y abrir plazas entre las estrechas calles del viejo Madrid, airear la sórdida urbe, quiere hacer funciones de teatro y corridas de toros que bien pronto se da cuenta que son las dos grandes aficiones de los españoles de la época, no había ni futbol ni TVE ni EITB. El pueblo le llega a llamar Pepe Plazuelas por las numerosas obras urbanísticas que acomete, pretende lo que arquitectónicamente se conoce como "esponjar" una vieja urbe, abrir huecos construyendo plazas entre las apretadas calles y callejas del viejo Madrid.

La marquesa de Montehermoso se instala en el palacio Masserano junto con la familia del general Lucotte, unos de los asiduos visitantes es el general Hugo, y allí su hijo Víctor juega con otra niña de edad parecida, es Amalia, su hija, posteriormente Victor la describira: *"petite espagnole, avec ses grandes yeux, sa peau brune et doree, ses levres rouges et ses joues roses, l´Andalouse de quatorce ans: Pepa"*,

Napoleonen semea jaiotzean, l' Aiglon (mirotza) izendatu zutena, Josef I.a Parisera joan zen, ilobaren bataiora. Bidelagun izan zuen Montehermosoko markes jauna, baina bidaia zorigaiztokoa izan zen, 1811ko ekainaren 8an, sukar handiek jota, hil egin baitzen markesa, eta gure protagonista alargun geratu. Pilar Acedok, antza, ez zuen berealdiko penarik eta unaturik hartu, eta lutorik ere ez zuen eraman galdutako senarraren gomutaz. Familiak, ordea, jokabide horren berri jakitean, gaitzetsi egin zuen eta, batzartu ondoren, ama eta alaba bereiztea erabaki zuen.

Amaginarrebak, Concepcion Corral Aguirre andreak, areago ere jo zuen, eta Montehermosoko markesaren titulua baliatzeko ahalmena kendu zion. Aurrerantzean, beraz, Echauzeko eta Vadoko kondesaren tituluak baino ez zituen erabili, aita-amagandik jasoak. Alabaina, beste tituluarekin, Josef I.aren bikote zela izan zuenarekin, ezagutu zuten denek ondorengo urteetan ere.

Tituluen gorabehera horrez gain, auzi mingarriagoa zen alaba bere ondotik bereizteko asmoa. Amaginarrebak, erlijio katolikoaren arauen araberako hezkuntza emateko aitzakian, Amalia amagandik urrun nahi baitzuen kosta ahala kosta. Familiak, hasiera batean, lortu zuen bere burubidea, baina gero ikusiko dugunez, alabak oso gertutik jarraitu zien amaren urratsei.

Bereizketa mingarri hori gorabehera, 1811ko uztailaren 16an, zezenketa handiak egin ziren eta markesa Josef I.arekin batera izan zen haietan, inoiz baino ederrago eta apainago, Pariseko moda-modako jantzirik hoberenak soinean eta zortzi zaldik tiratutako zalgurdian, urre koloreko uhalei tiraka. Loria handieneko garaia huraxe izan zuen, inondik ere.

Geoffroy de Grandmaison idazleak hauxe idatzi zuen markesari buruz: *" La très Belle, très fière et très légère Madame de Montehermoso prétendait jouer les Pompadour et aux intrigues melait les projets. Elle tenait a ce rôle de maitresse du roi, en réclamait publiquement les honneurs, marchant avec des escortes de cavalerie a travers l´Espagne et forçant la main aux gouverneurs qui ne semblaient pas se mettre assez promptement a ses ordres".*

> *(Montehermosoko Madame ederrak, harroak eta arinak, ederrik, harrorik eta arinik bada, Pompadourren tankeran jokatu nahi zuen, eta azpijokoetan proiektuak nahasten zituen. Erregearen bikotetzat hartzen zuen bere burua, eta publikoki beretzat eskatzen zituen erreginaren ohoreak, Espainian barna zalditeriaren eskoltarekin bidaiatuz eta haren aginduetara azkar jartzen ez ziren agintariei kargu hartuz).*

Espainiako egoera militarra aldatuz joan zen 1812tik aurrera eta Frantziako tropen kontrakoa bihurtu zen.

Napoleonek buru-belarri jardun behar izan zuen Errusiako kanpainan, han behar zituen bere troparik onenak. Ondorioz, Espainiatik atera zituen tropa prestatuenak, eta haien ordez, ahulago batzuk jarri zituen; are okerrago, frantziarrez beharrean konkistatutako herrialdeetatik zetozen gizonez osatutako tropak utzi zituen Espainian.

*(pequeña española, con ojos grandes, piel morena, labios rojos y mejillas sonrosadas, la andaluza de 14 años, Pepa)* parece ser que era Pepa el nombre que usaba Amalia con sus amiguitos y servidumbre.

Víctor Hugo escribió mas tarde otra larga poesía contando aquellos juegos y tardes pasadas en el palacio Masserano.

Al nacer el hijo de Napoleón, el denominado l´Aiglon (el aguilucho), José I va a Paris a su bautizo, le acompaña el marques de Montehermoso, pero desgraciadamente el 08.06.1811 fallece a causa de unas fiebres, nuestra protagonista queda viuda, no le preocupa excesivamente, no llega ni a llevar luto por él, pero su conducta es conocida por su familia, que la desaprueba y reunida en consejo toman la decisión de separar a la hija de la madre.

Su suegra, Concepción Corral Aguirre, sigue más adelante, le inahabilita para usar el título de marquesa de Montehermoso, a partir de este momento volverá a utilizar sólo los títulos de condesa de Echauz y condesa del Vado, los heredados de sus padres, sin embargo será conocida con el otro título, el que disfrutaba cuando era pareja del rey José I.

Además de este problema de títulos, hay otro aún mas doloroso, pretende apartarle a su hija de su lado con la escusa de darle una educación más acorde con las normas de la religión católica, así será en un principio, luego veremos que la hija siguió muy cerca de la madre.

A pesar de esta dolorosa separación, el 16.07.1811 hay unas grandes corridas de toros y la marquesa acude acompañando a José I, mas guapa y preparada que nunca, lleva todo a la ultima moda de Paris y se pasea en un carro tirado por 8 caballos, con atalajes dorados, es probablemente el momento de mayor gloria.

Un escritor, Geoffroy de Grandmaison, dice de ella: "La très Belle, très fière et très légère Madame de Montehermoso prétendait jouer les Pompadour et aux intrigues melait les projets. Elle tenait a ce rôle de maitresse du roi, en réclamait publiquement les honneurs, marchant avec des escortes de cavalerie a travers l´Espagne et forçant la main aux gouverneurs qui ne semblaient pas se mettre assez promptement a ses ordres».

> *(La muy bella, muy orgullosa y muy ligera Madame de Montehermoso que pretendía actuar a lo Pompadour y en las intrigas mezclaba los proyectos. Hacía el papel de pareja del rey, reclamando públicamente los honores, viajando con escolta de cabellería a través de España y amonestando a los gobernadores que no se ponían rápidamente a sus órdenes).*

La situación militar en España va cambiando a partir de 1812 y se va tornando contraria a las tropas francesas.

La campaña de Rusia absorbe totalmente a Napoleón, necesita allí sus mejores tropas y va llevando de España a las tropas mas preparadas sustituyéndolas por otras menos preparadas y sobre todo provenientes de países conquistados que no de Francia.

Viendo el cariz que van tomando las cosas la marquesa de Montehermoso, de acuerdo con José I toma la decisión de salir de Madrid y se instala en Donibane Lohitzun.

Egoera zuritik beltzera hartzen ari zen jira ikusita, Montehermosoko markesak, Josef I.arekin adostuta, Madrildik irteteko eta Donibane Lohitzunera jotzeko erabakia hartu zuen.

Han, beste frantsestu batzuekin batera, adi jarraitu zion Espainiako bilakaera politiko-militarrari, egoera noiz aldatuko zain, berriro itzuli ahal izateko itxaropenez.

Aldi hartan, Gontau-Bironeko dukesa ezagutu zuen, Baionan Josef I.a Espainiako errege koroatu zutenean Napoleonen ohorezko guardiaren buru egin zuen militarraren emaztea, hain zuzen, eta Frantzian, mugatik hurbil, jabegoren bat erosteko asmoa azaldu zion.

Dukesak jakinarazi zion jabego bat zuela Carresen, ez berak eta ez senarrak erabiltzen ez zutena, eta salmentan eskaini zion. Montehermosoko markesak, duda izpirik egin gabe, erosi egin zuen. Hain zuzen, 1812ko urriaren 20an sinatu zituen salerosketaren eskriturak Pabeko notario baten aurrean.

Baina maitea urrun zela, egunak luze egiten zitzaizkion, eta, ondorioz, jauregi erosi berria bisitatu gabe eta bertan bizi gabe, Madrilera itzuli zen berriro.

Baina bidaia egin aurretik, zenbait neurri hartu zituen jauregia zaintzeko; hala, Jacques-Philippe Sibas Carreseko alkatea jarri zuen jabegoaren intendente. Haren anaia, Jean-Baptiste Sibas, jendarmea, Tolosan egona zen soldadu-taldean, eta Tolosan bertan ezkondu zen Maria Josefa Umendia Foronda tolosarrarekin, 1810eko urtarrilaren 5ean. 1780ko urriaren 20an jaioa zen emaztea.

*Jendarmeria ez zen armada bat, baina kide gehienak armadatik zetozen, soldadu beteranoak ziren edo gerran zauritutakoak, eta batetik bestera igarotzen ziren.*

*Oso eraginkorrak ziren, nonbait, gerrillarien aurkako gerran, eta hala, Euskal Herrian, Aragoin eta Katalunian hedatu ziren.*

*Azaldu beharrekoa da kontua. Arestian esan dugunez, jendarmeria ez zen armada bat, polizia baizik eta polizia zen aldetik, Frantziako lurraldean heda zitekeen. Armada izan balitz, lurraldearen konkistaz ariko ginatekeen, baina polizia zen.*

*Napoleonen asmoetako bat zen Portugal eta Espainia Josef I.aren koroaren pean elkartzea, baina Ebroren iparraldean, aurrez aipatutako herriak Frantziara bilduta. Hortik jendarmeria lurralde horietan hedatu izana. Gainerakoan, eta beste hipotesi bat da hau, estatu-tapoi bat eratuko zen Frantzia eta Espainia artean.*

Jendarmea Zuberoako Ziboze herrikoa zen sortzez, eta haren aita Zibozeko jauna zen, Oloroeko apezpikutzaren mendekoa. Jean-Baptiste Sibasen ezkontza-agirian, Tolosan bizi zela zehazten da. Gaur egun, Ziboze bat eginda dago inguruko beste herrixka batzuekin, Aloze-Ziboze-Onizegaineko udalean.

Jendarmearen emaztea Umendia familiakoa zen, Tolosako familia aberats eta garrantzitsuenetako batekoa. Horrek adierazten du, nolabait, herri-



**Carreseko jauregia, 1933ko irailaren 15ean erre aurretik**
**El palacio de Carrese antes de arder el 15.09.1933.**

Allí, en compañía de otros afrancesados, sigue la evolución político-militar de España y espera que cambie la situación para poder volver.

Mientras tanto conoce a la duquesa de Gontau-Biron, la esposa de aquel militar que mandó la guardia de honor cuando Napoleón fue a Baiona a coronar a José I como rey de España y le comenta sus intenciones de comprar una propiedad en territorio francés, cerca de la frontera.

La duquesa le informa de que tiene una propiedad en Carresse, que ni ella ni su marido utilizan y le ofrece en venta; la marquesa de Montehermoso, sin dudarlo un momento, lo adquiere y el 20.10.1812 firma las escrituras de compra-venta ante un notario de Pau.

Pero el tiempo se la hace largo sin estar con su amado y su estancia en Francia es breve y sin llegar a haber visitado y aun menos habitado el palacio recién comprado, vuelve a Madrid.

Pero antes de hacer este viaje, si organizará la nueva residencia y pone como intendente del palacio a Jacques-Philippe Sibas, que era el alcalde de Carresse, el cual era hermano de Jean-Baptiste Sibas, gendarme, que estando de guarnición en Tolosa, se había casado en esta villa el 05.01.1810 con la tolosarra María Josefa Umendia Foronda nacida el 20.10.1780.

*La gendarmería no era el ejercito, aunque casi todos sus miembros procedían de el, eran soldados veteranos o con heridas de guerra que pasaban de un cuerpo al otro.*

*Eran considerados como muy eficaces en la guerra contra los guerrilleros y se desplegaron en Euskal Herria, Aragón y Catalunya.*

*Esto merece una explicación, como hemos dicho la gendarmería no es ejercito, es policía y como tal solo se despliega en territorio nacional, el ejercito puede invadir otra nación, no la policía.*

tarrek ez zituztela gaizki ikusten Frantziako jendarmeak. Aita, Jose Ignacio Umendia Erkizia (1729-05-10) azpeitiarra zen, eta ama, Concepción Foronda González de Chávarri (1755-12-08) gasteiztarra. Ezkondu Gasteizen ezkondu ziren 1773ko urtarrilaren 1ean, baina Tolosara etorri ziren bizitzera, eta Tolosan jaio ziren haien bost seme-alabak.

Sibas Umendia senar-emazteek hiru seme-alaba izan zituzten: Luis (Tolosa, 1810-10-30), Carlos (Tolosa, 1811-11-4) eta Maria Juana (Tolosa, 1812-09-19). Nola ez, 1813. urtean, Napoleonen tropek atzera egin zutenean, alde egin zuten Tolosatik eta ez zen haien arrastorik geratu.

1812ko uztailaren 22an, Arapilesko guduan borrokatu ziren tropa frantsesak eta espainiarrak, Salamancatik gertu, eta gudaldi hura izan zen okupazio frantsesaren gainbeheraren hasiera; izan ere, ondorengo ekintza belikoetan gauzak gero eta okerrago joan zitzaizkien frantsesei; gerrillariek areagotu egin zituzten beren ekintzak eta ingeles-espainiar-portugaldarren armadak, Wellingtoneko dukea (Arthur Colley Wellesley) buru zuela, hainbat garaipen lortu zituen bata bestearen atzetik han eta hemen. Egoera horrela, Frantziako tropak gero eta kinka larriagoan, Montehermosoko markesak alde egin zuen Madrildik 1813ko martxoan, eta Gasteizen finkatu zuen bizilekua, Josef I.arengandik urrun. Erregeak hilabete batzuk gehiago eutsi zion Gortean, baina azkenean hark ere alde egin zuen Madrildik, 1813ko ekainaren 2an, eta Frantziarako erromesaldian, geldialdia egin zuen Gasteizen, 1813ko ekainaren 19an, noiz eta Gasteizko gudu erabakigarria baino bi egun lehenago. Izan ere, gudaldi haren ondoren Frantziako armadak behin betiko atzera egin zuen Espainiatik.

Frantziarako bidean, dena galduta zegoela, artearekiko zaletasun eta grina itsuak bultzaturik, eskura izan zituen artelan guztiak beretzat hartu zituen Josef I.ak, eta zama astun horrekin jarraitu zion bideari, astiro eta nekez, Gortearen martxa nabarmen geldoagoa eginez. Bidaiak 17 egun iraun zuen, eta garai hartan, normalean, 3-5 egun aski izaten zituzten Madril eta Gasteiz arteko bidea egiteko.

Gasteizko gudua 183ko ekainaren 21ean izan zen; huraxe izan zen frantsesen atzeraldian atzeneko gudaldietako bat, azken garaipentzat hartzen dena. Egun hartan, gure protagonista Josef I.arekin zen Montehermosoko jauregian. Borrokaren ondotik, Altsasutik barna Iruñerako bidea hartu zuten bibiek, handik Frantzia aldera jarraitzeko. 1813ko ekainaren 23an iritsi ziren Iruñera. Egun berean, Frantziarako beste bide batean, Tolosan, beste gudaldi bat izan zen. Gertaerak azkartzen ari ziren. Borrokaldi hartan, gainera, Frantziara bidean zen artelanen zama garrantzitsu eta garesti haren zati handi bat galdu zen. Galdu baino gehiago Tolosan geratu zen nonbait, herritarrek *frantsesen altxorra* esaten diotena. Santa Klara inguruan, muinoaren azpian behar du nonbait, autobideak Monja Ttonttor parean erdibitzen duen lekuan, altxor-bilatzaileren batek, metalak hautemateko gailu on bat lagun, noizbait aurkitzeko zain.

*En los planes de Napoleón estaba el unir Portugal y España bajo la corona de José I, pero al norte del Ebro, los países antes mencionados iban a ser incorporados a Francia, de ahí el despliegue en los mismos de la policía francesa o, es otra hipótesis, se iba a crear un estado-tapón entre Francia y España.*

Este gendarme era natural de Sibas, localidad zuberotarra de la cual su padre era Señor de Sibas, dependiente del obispado de Oloron y en la partida de matrimonio aparece como residente en Tolosa, en la actualidad este pueblo se ha unido con otros pueblecitos próximos y forman el ayuntamiento de Aloze-Ziboze-Onizegaine (Alos-Sibas-Abense en francés).

Su esposa era de la familia Umendia, una de las más importantes y ricas de la localidad, lo cual puede indicar que estos gendarmes no eran mal vistos por parte de la población. Su padre José Ignacio Umendia Erkizia era de Azpeitia (10.05.1729) y su madre Concepción Foronda González de Chávarri era de Vitoria (08.12.1755), se habían casado en Vitoria el 01.01.1773 pero vinieron a vivir a Tolosa donde nacieron sus cinco hijos.

El matrimonio Sibas Umendia tuvo 3 hijos, Luis (Tolosa 30.10.1810), Carlos (Tolosa 04.11.1811) y María Juana (Tolosa 19.09.1812), naturalmente en 1813 desaparecieron de Tolosa con la retirada napoleónica y no quedó rastro de los mismos.

La batalla de los Arapiles, cerca de Salamanca, tuvo lugar el 22.07.1812 y es considerada como el inicio del declinar de la ocupación francesa en España, ya que a partir de esa fecha las acciones bélicas comenzaron a ir mal a los franceses, los guerrilleros intensificaron sus acciones y el ejército anglo-hispano-portugués al mando del duque de Wellington (sir Arthur Colley Wellesley) fue teniendo actuaciones triunfantes; ante el cariz que iban tomando los acontecimientos claramente desfavorables a las armas francesas, la marquesa de Montehermoso salió de Madrid en marzo de 1813, instalándose en Gasteiz; allí está separada de José I, el cual aguanta un poco más en la Corte, pero finalmente también la abandona el 02.06.1813 y en su peregrinar hacia tierras francesas llega a Gasteiz el 19.06.1813, dos días antes de la considerada decisiva batalla de Vitoria, con la que se inicia la ya absoluta retirada del ejército francés.

Al volver hacia Francia, cuando estaba todo perdido, esa afición a las artes que hemos comentado de José I, le hizo arramplar con cuantas obras de arte tuvo a mano y con ese pesado bagaje se retiraba, haciendo lenta y penosa la marcha de la Corte; el viaje se prolongó hasta 17 días cuando lo normal en aquella época era 3-5 días entre Madrid y Gasteiz.

El 21.06.1813 día de la batalla de Vitoria, una de las últimas en su retirada, la considerada como victoria final, nuestra protagonista estaba con José I en el Palacio de Montehermoso y al salir hacía la frontera por Alsasua, tomaron el camino de Iruña adonde llegaron el 23.06.1813, en esa misma fecha, en otro camino hacía Francia, en Tolosa se iba a desarrollar otra batalla, los acontecimientos se precipitaban y de la artística y costosa obra de arte, que iba camino de Francia, bastante quedó en Tolosa, lo que el pueblo conoce como tesoro de los franceses, que espera ser encon-

Lau egunera, 1813ko ekainaren 27an, gure bikoteak muga gurutzatu zuen Beratik, eta Donapaleura jo zuen. 1813ko uztailaren 8an, han jaso zuen Josef I.ak anaia Napoleonen gutuna, Espainiako erregetzatik kargugabetu zutela jakinarazteko.

Josef I.aren gortea 1813ko uztailaren 15ean bildu zen azkenekoz, Baionan, eta ondoren, desegin egin zen. Eta Josef I.aren eta Montehermosoko markesaren harremanak ere hantxe egin zuen berea, biek ala biek Pariserako bidea hartu arren, nork bere aldetik egin baitzuen bide hori. Ez zuten gehiago elkar ikusi.

trado por un afortunado buscador de tesoros, que con la ayuda de un buen detector de metales logre su localización en la zona de Santa Clara, por debajo de la colina de Monja Ttonttor, hoy en día seccionada por la autovia.

A los 4 días, el 27.06.1813 nuestra pareja atraviesa la frontera por Bera y se dirige a Donapaleu donde el 08.07.1813 José I recibe la carta de destitución como rey de España de su hermano Napoleón.

En Baiona se celebra el 15.07.1813 la última reunión de la corte josefina que queda disuelta, como también queda disuelta la pareja José I – marquesa de Montehermoso, ambos se encaminan a Paris por separado, no se volverán a ver.



**Tolosako ikuspegia, Santa Klara konbentua Napoleonen gudalosteak ospitala bihurtu zuen eta aldameneko baratzetan hildako soldaduak lurperatzen zituzten.**
***Vista de Tolosa, el ejército de Napoleón convirtió el convento de Santa Clara en hospital, y en las huertas colindantes enterraban los soldados fallecidos. Egilea: Salneuve.1820.C. le Camus litografia.***

# Frantzia
## Francia




# 6.

## 6. FRANTZIA

Frantziara iritsi orduko egin zuen berea Josef I.aren eta Montehermosoko markesaren maitasunak; erregea Parisera joan zen eta handik Ameriketako Estatu Batuetara, eta han hil zen, oparotasunaren aparretan. Pilar Acedo, berriz, Baregesera joan zen, Pirinioetako bainuetxe ezagunera.

Napoleonek jarraitu egin zien bere kanpainei, gero eta jazarriago ekialdetik eta mendebaldetik, harik eta Waterlooko porrot entzutetsuaren ondoren bere inperioa desegin zen arte. Enperadorearen armadako ofizialak lanik gabe geratu ziren halabeharrez, ez baitziren haren ondorengo Luis XVIII.aren konfiantzazkoak.

Ofizial haien artean zegoen Joseph Caraben, 1785eko apirilaren 6an Avignonen jaioa, plebeioa izatez baina militar adoretsua. Gogoan izango dugu Baionako konstituzioa sinatzeko ekitaldian, Napoleoni harrera egiteko ohorezko guardiako kideen artean zela Caraben. Bere ausardiari esker, pixkanaka mailaz igotzen joan zen eta hainbat ekintza azpimarragarriren protagonista izan zen; esate baterako, 1814ko otsailaren 12an, La Gardeko 3. erregimentuko 50 guardiarekin garaile atera zen Chateau-Thierryko guduan, eta artilleria prusiarraz jabetu zen. Hortik etorri zen gero artilleria horren porrota.

Napoleonen porrotaren ondotik, Joseph Caraben Baregesera joan zen, Montehermosoko markesa bizi zen lekura, eta han, tolosarrak antolatutako tertulietara joaten hasi zen, eta tertulietatik harago, haren ohantzea maizten ere bai.

Tarbesko prefektua kezkaturik zegoen tertulia haietan biltzen zen taldetxoarekin, uste baitzuen konspiratzaileak zirela, Luis XVIII.a erregearen aurkakoak eta Napoleonen jarraitzaileak. Areago, polizia-agente bat bidali zuen taldea espia zezan. Jasotako txostena, ordea, lasaigarria izan zen: *" Markesa, betidanik, losintxaren aldekoagoa izan da, afera politikoen zalea baino. Josef erregearen maitalea izan zen, eta lotura estua du Belliard jeneralaren emaztearekin, Madrilgo emakume ederrenetako bat bera. Oraindik ere Josef erregearengandik jasotako jabegoak ditu Orthezen; Espainian jada ez du jabegorik... Oso elegantea da eta egiaz espirituala eta atsegina; hitz batean, markesa ez da arriskutsua"* (12).

1816. urtean izan zen hori. Baregeseko ofizialen artean, aipatutako Carabenek erakartzen zuen gehien gure markesa, eta, hala, abuztuaren 16an, bi-biek alde egin zuten Baregesetik eta Parisera jo zuten bizitzera. Ez zehazki hiriburura, landa-inguruneko hurbileko herri batera baizik. Hala ere, bikotea maiz joaten zen *ville lumiere*-ko festetara.

Ez ziren luzaro bizi izan Parisen, pare bat urte gehienez, 1818. urterako Carresen baitziren, Biarnon, markesak Gountaut-Biron familiari erositako jauregian.

## 6. FRANCIA

Llegados a Francia, se terminaron los amores de José I y la marquesa de Montehermoso, él se fue a Paris y de allí a los Estados Unidos de Norteamérica donde murió en la abundancia y ella se fue a Bareges, estación termal en los Pirineos.

Napoleón siguió sus campañas, cada vez más acosado por el este y por el oeste y cuando finalmente terminó su imperio con la famosa derrota de Waterloo, los oficiales de su ejército quedaron en el paro forzoso por no ser de la confianza de Luis XVIII su sucesor.

Entre estos oficiales estaba Joseph Caraben, natural de Avignon donde había nacido el 06.04.1785, de estirpe plebeya pero bravo militar, que fue poco a poco alcanzando grados, siendo una de sus acciones más destacadas la carga que con 50 guardias del 3º Regiment de la Garde realizó en la batalla de Chateau-Thierry el 12.02.1814 en la que logró apropiarse de la artillería prusiana, contribuyendo a la derrota de la misma.

Este Joseph Caraben llegó a Bareges, donde como hemos dicho vivía la marquesa de Montehermoso y allí junto con otros oficiales frecuentaba sus tertulias y se supone que su lecho.

Este grupo causaba inquietudes al prefecto de Tarbes, pues creía que eran conspiradores, contrarios al rey Luis XVIII y seguidores de Napoleón, llegó incluso a mandar a un agente de policía para que espiase al grupo, el informe que recibió fue tranquilizante: *"la marquesa, de siempre, ha hecho más uso de la coquetería que de las intrigas políticas; amante del rey José, estaba íntimamente unida con la del general Belliard, una de las más hermosas mujeres de Madrid. Posee aún en Orthez algunas propiedades obtenidas del rey José; en España no posee ya nada…….muy elegante y verdaderamente espiritual y agradable, la marquesa no es peligrosa"* (12).

Esto ocurría en 1816 y entre los oficiales de Bareges, el anteriormente citado Caraben era el que más atraía a nuestra marquesa, tanto que el 16.08.1816 abandonaron ambos Bareges y se fueron a vivir a Paris, no exactamente a la capital, sino a una villa de campo en las proximidades, lo cual no le impedía acudir con su pareja a las fiestas de la *ville lumiere*.

Poco tiempo residieron en Paris, unos dos años, pues en 1818 les vemos viviendo en Carresse, en el Bearn, donde la marquesa había adquirido un palacio, a la familia Gontaut-Biron.

En este tiempo nuestro capitán de la Guardia Imperial cambió su apellido añadiéndole una e, de Caraben en Carabene y su nombre lo alargó, como hemos dicho al principio del trabajo que eran los nombres aristocráticos, así de Joseph Caraben paso a ser Amédée Jacques Joseph de

[12] VIDAL-ABARCA, Juan. LINAJES ALAVESES. LOS AGUIRRE: MARQUESES DE MONTEHERMOSO. Sancho el Sabio Erakundearen aldizkaria. XIX. urtea. XIX. Liburukia. Gasteiz, 1975. / *VIDAL-ABARCA, Juan. LINAJES ALAVESES. LOS AGUIRRE: MARQUESES DE MONTEHERMOSO. Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Año XIX. Tomo XIX. Vitoria 1975.*

Denbora hartan, Guardia Inperialeko gure kapitainak aldatu egin zuen abizena, aurrekoari " e" bat erantsi eta Carabene bihurtuz; eta aristokraziaren usadioari jarraituz, izen segida luzea erantsi zion bereari; hala, Joseph Caraben izatetik Amédée Jacques Joseph Carabène izatera pasa zen. Eta izenak izana ekarriko balu legez, 1818ko apirilaren 11n ezkondu egin ziren Pilar Acedo Sarria eta biak, zibilez, Carresetik hurbileko herri batean. Ezkontzaagirian, tolosarrak ez zuen zertan titulurik erantsi, bazituen lehendik, eta ez gutxi gainera. Agirian, Comtesse d´Eschaux et d´Elbado (Dame Marie Pilar) ohoreak gehitzen zaizkio izenari. Ordea, senarrak ere zenbait titulu erantsi zizkion bere izenari, ezerezetik atereak; hala, Ohorezko Legioaren ordenako, Bi Sizilietako eta Errusiako San Wladimiroko zaldun tituluak ageri dira agirian, azken hori bereziki susmagarria eta ipuinen batetik ateratakoa.

Nahiz eta Carresen bizi, ondoko Auterrive herrira joan ziren ezkontzera (lau kilometrora dago), herriko alkatearen aurrera. Carresen, bikoteak hainbat gorabehera eta sestra zituen udalarekin haien jabego ugariak zirela eta ez zirela, eta pentsatzekoa da ezin ikusi horien ondorioz jo zutela ondoko herrira ezkontzera.

Frantzian, ezkontza zibilaren ondoren, elizaz ezkontzen ziren bikote gehienak, ez beti baina bai gehienetan. Pentsatzekoa da gure bikotea ere elizaren bedeinkapen guztiekin ezkondu zela aurrerago; izan ere, Pilarrek, alarguna izanik, ez zuen inolako eragozpen kanonikorik berriro ezkontzeko, eta senarrak ere behin baino gehiagotan adierazi zuen aurrez fededuna eta elizkoia zela. Kontuak kontu, elizaz ezkondutako daturik ez dago artxiboetan, ez Auterriveko elizan, ez Carressekoan ez eta ondoko Casber eta Salies de Bearneko elizetan ere. Horietan guztietan, 1831. urtean hasi ziren ezkontzak artxiboetan jasotzen, gure biografiaren protagonista ezkondu eta urte dezentera.

